

Roald Dahl

Charlie eta txokolate-lantegia

Itzultzailea: Agurtzane Ortiz de Landaluze

Alfaguara-Zubia, "Haur-literatura" bilduma

Madril, 1994

Istorio gozoa, zinemak berreskuratua

Roald Dahl (1916-1990) idazle galestarra joan den mendeko haur eta gazte literaturako idazle handienetakoa izan da. Bere obretan, umeen alderdi ezkutua samurtasun handiz azalarazten saiatu zen: janariarekiko grina, beldurrak, gurasoengandik aldentzeko beharra...; eta, hori izan zela eta, urte askotan kritikoez arbuiatu eta baztertu egin zuten haren obra. Hona Dahl-en idazlan batzuk: *James eta muxika erraldoia*, *Matilda*, *Sorginak*, *Erraldoi on miragarria*, *Errima errebeldeak*...

Nahiz eta lehendik ere bazuen idazlan mordoxka bat zinemaratua -baita zinemarako propio egindako gidoi ezagun bat ere, "Gremlins" filmekoa-, aurtengo zinema-estreinaldien artean, Tim Burton-en pantaiaratze duinak gaurkotasuna itzuli dio Dahl-ek 1964an idatzitako idazlan bati, *Charlie eta txokolate-lantegia* delakoari, eta hori dela eta berreskuratu dugu geuk ere.

Kontatzen den istorioa ezaguna dateke honez gero: Wonka txokolate-lantegiko jabeak bere lantegi misteriotsua bisitatzeko aukera eman die mundu osoko bost umeri. Bisitaldian, ordea, ume bakoitzaren alderdi eta joera okerrak agertuz joango dira, dagokien zigorrarekin batera, Charlie bakarrik geratzen den arte. Ustekabez eta umorez betetako istorioa da, nahiz eta, iragarri dudan legez, moraltasunik ere ez zaion falta.

Guztiarekin ere, jatorrizko testua argitaratu zenean, izugarrizko problemak izan zituen Erresuma Batuan zein Estatu Batuetan zerion ideologia arrazista zela eta, fabrikako langile txikiak, Oompa-Loompa izeneko hiru mila izakiak, Wonka jaunak Afrikatik zuzenean ekarritako pigmeo beltzak zirelako, Faith Jacques-en jatorrizko marrazkiek garbi erakusten zuten legez. Polemika dezente gaiztotu zen, marrazki guztiak eta pasarte batzuk aldarazteraino. Euskal bertsioek, zorionez (alderdi paleo-filologikotik) edo zoritxarrez (gaurkotasun ezaren aldetik), jatorrizko testu-irudiak jasotzen dituzte, bai Juan Mari Sarasolaren 1989koan, bai hizpide dugun oraingo honetan ere, aurtan bertan berrargitaratua. Interesa duenarentzat, esan dezagun bertsio berriko irudiak gerora Dahl-en ohiko kolaboratzaile bihurtuko zen Quentin Blake-renak zirela, eta Oompa-Loompa begi handi primitibo txiki zuriak irudikatzen zituela; halakoxea testua ere bai: Afrikatik ez baizik eta Loompalandiatik ekarriak ziren, oihan sarriez eta piztia miresgarri

ezezagunez betetako herrialdea. Bihoa anekdota, politikoki zuzenaren besoa luzea eta aspaldi samarrekoa dela erakusteko.

Gainontzean, zinemako bertsioek jatorrizko liburuetara daramatela egia bada, bolada hau aukera polita iruditzen zait zaharkitu itxurako liburu eder honi berriro heltzeko.

Manu Lopez Gaseni